

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko ekainaren 10a / IV. urtea / 131. zenbakia

Sefardiak Tuteran berriro ere

אברהם אבן עזרא

מה תשובי עצובה
כאשה עצובה?

שובי לבית מסבך
כי יש צרי לעצבך.
גם לחנות בקרבך -
התבשרי, נדיבה -
כי הנני בא.

ולראש תהי גברת
לחן ולחן



ותבכי לעיר תהלה
צר החרים ושבה
הנך שבה.

בנים אשר גמלתים,
על מעלם עצבתים,
הן אעטר ושבתים -
וארפאה משובה,
אהבם נדבה.

1512an iberiar penintsulan zeuden erre-suma guztiko juduek erbestera joan behar izan zuten, garaiko kristauen intolerantziak egotzita. Nafarroan bi hiritan bildu ziren judu talderik garrantzitsuenak: Iruñean eta Tuteran. Orduan azien-dak eta ondasunak utzi behar izan zituzten, eta orain, ia bostehun urte geroago, familia horietako ondorengo bat bere jatorrira itzuli da, Tuterara. Egipton jaiotako Haim Menir Sokkar juduak Tuterako Sefardien Lagunen Elkarte osatu du, Tuteran jaioterria duten familia judu prestu askoren dirulaguntzari esker, eta Udalak San Julian kalean utzi dion etxean, sefardiei buruzko lehen museoa paratuko da urrirako. Dudarik gabe, jatorri eta norberaren nortasunarekiko atxikimenduaren adibide paregabea.

Tutera izan zen, Gasteiz, Baiona eta Iruñearekin batera, Euskal Herriko juduen gunerik garrantzitsuenak. Bertan sortu ziren Benjamin Tuterakoa eta bere lanen pasarte bat agertzen dugun Abraham Ibn 'Ezra' kultur gizon ospetsuak.

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Laberinto ñabarretan

A ireak daramatzan urrin guztiak gordetzen ditu biriketan bidaiariak. Zerua, haizea eta hodeiak erloju eta itsasorraz bihurtu zaizkio. Ur xirripa askotan busti ditu aurpegia eta ilea, oihan bakoitzean etxe eta laberinto berriak atzeman ditu. Hosto, abar eta enborren erresuman, galdurik ibiliatik zoriontsu, animale izkutuen ibilerak jarraitu ditu. Ostatu hartu duen etxeetan bertakoen usadioak onetsi ditu, eskaini diotenari muzin egin gabe jan eta edan du. Bidaiaria mintzaira berrien doinuei adi egon da luzaro. Edozein karriketako edozein zokotan geratzen da, burua hotsez bete dadin, begiak jendearen joan-etorriak jaso ditzan.

Ez da aski. Bidaiariari mapa falta zaio, eta linea ikustezinak ahortzi ditu: DOUANE, ADUANA, FRONTIERE, FRONTERA. Atzera botatzen duen indar bat nabaritu du. Eta gauak ezer ez den linea horri begira harrapatu du bidaiaria. Loa kontsolagarri izanen zaiolakoan erretiratu da.

Horrelakoak ekar ditzake maparik gabe abiatzeko. Mapa eta gida ez baitira beti sinonimoak. Mapa ñabarretan mahai baten gainean zabaldu eta esku batez zapaltzeko erabiltzen dira, «honaino heldu gara» edo «hau guztia gurea da» esateko.

Loak hartu eta gero ere, linea ikustezinaren itzalak zeharkatu du bidaiariaren gogoa, eta eldarnioak inarrosi du gau guztian.

Argitu ostean egin du kanpora. Linea ondoko karriketan topatu dituen begiek gauza bera diote. Bidaiaria pasatzen ikusi eta 'badoa' pentsatzen dute batzuk, 'heldu da' besteek. Irudipen bera finean.

Linearen ertzean zutik, bidaiariak berehala ikusi ahal izan du, alde bateko eta besteko polizia etxoletako ispiluei begiratuta, irudi berbera itzultzen dutela. Une horretan nahasita, ia galduta sentitzen da, etxera bueltatzeko aiherrik.

MUSIKA



Nahizer Bizkor eta Eztanda musika taldeen kontzertua izanen da gaur ostirala, ekainak 10, Iruñeko Manuel Iribarren eskolatan. Ermitagaina auzoko Kultur Asteko ekitaldiak amaitzeko antolatua, arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

'Los Rockanrolaris' eta **'Los Dinosaurios'** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar larunbata, hilak 11, Lesakako pilotalekuan. Bertako gazteak antolatuta, gaueko 22.00etan hasiko da.

ANTZERKIA



Los Galindos antzerki taldeak **'Las fabulas del circo de Tudela'** izenburuko antzezlan aurkeztuko du asteburu honetan Eskirotz eta Otsagi herrietan. Udaberriko Bira programazioaren barruan antolatua, bihar arratsaldeko 17.00etan Otsagiko Blankoa plazan ariko dira, eta etzi, igandean, Eskirotz aldera joko dute, bere lana eguërdiko 13.00etan plaza berrian taularatzeko.

MENDI IRTEERA



Baztango Martxa ospatuko da igande honetan, ekainak 12, Baztango Mendigoizaleak elkarrekin antolatuta. Elizondo-Elizondo ibilbidean parte hartu nahi dutenek arau batzuk bete behar dituzte eta beste zerbait kontuan izan: 500 pezeta ordaindu behar dira, 12 urte baino gehiago mendigoizaleek joan beharko dute, irteera izena ematearen ordenaren arabera egingen da, txartela kontrol postuan erakutsi behar da, lehen taldea goizeko seietan abiatuko da.

BESTELAKOAK



Kartel lehiaketa antolatu du Berako udalak herriko jaien programaren irudia aukeratzeko. Argazkia edo kartela izan daiteke eta edozeinek aurkez dezake bere proposamena. Gaia Bera herria izango da eta irudiek koloretan behar dute izan. Bakoitzak nahi dituen katel guztiak eraman ditzake, ekainaren 30a baino lehen, udal bulegotan, norberaren datu guztiak jarritz. Aukeratutako lanak 15.000 pezetarekin sarituko dira eta 10.000 pezetako beste sari bat ere iragarri dute.

Autodefentsa ikastaroa antolatu du emakumeentzat Andrea zerbitzuak, udako jaien aurrean emakume guztiak prest egon daitezten. Ekainaren azken astean izanen da, 27an hasi eta uztailearen lehen bukatu. Izena emateko 22 77 14 telefonora deitu.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Lohikeriak

Susmoak, denok genituen. Aspaldi, gainera: 'Lapur txikiak kastigatzeko, nonahi badago kartzela, handiak hor ikusten ditut, paseoan dabilzala'. 'Les Mecaniciens' taldeak kantatzen du, baina, oker ez bana-go, Txirritarena da. Orduetik hona, gauzak ez dira gehiegi aldatu, antza. Egun ikuski-

ren gidoia —gidoi klasikoa, inprobisaziorako toki gutxi uzten duena— argitaratzeko; parentesiz beteriko hori, egiazkoa, antzezleek erabiltzen duena: sarrera, ez tul, 'ad libitum', jazkeraren zein 'at-trezzo-ren' gorabeherak eta paratu beharreko aurpegi berri ematen duena.

Gizartea, ordea, lapur txi-

txapeldun, eta azken lohi hauetan izterrak elkartzen diren tokiraino lokatzez beterik ateratakoak, txapeldunorde. Eta horrek ez du esan nahi politikari honestorik edo hiritar zintzorik ez dagoenik. Baina gizartea oihtu da diruaren interesak kudeatzen dituen klase politiko erdipurdiko batekin, erabaki



zun gehiago, antzerkia, hori bai; inork proposatu beharko lieke politikoei hurbilagotik egokitu zaigun parte —ikerketa batzordearena, alegia—, inoiz errepikatu behar izanez gero, Gayarre antzokian egiteko. Eta, proposatzen hasi ezker, ondo-

kiei beha jartzearekin, edo ustelkeria betikoa delako lelo interesatua esatearekin konforme gelditzen da; datorren igandeko hauteskundeetan, inkesten arabera, zer espero den ikustea nahikoa: urte luzeetan ebasle fama ongi merezia bildu dutenak,

du lapurrez inguratutik bizitzea ez dela gertatzen ahal zaion gauzarik larriena, eta honez gero politikari honesto batek boterea eskura lezakeela pentsatze hutsak dardar batean jartzen du. Eta hori bai dela etsigarria.

ASTEKO PERTSONAIK



Juan Cruz Alli
Gobernuko Lehendakaria

Itzoko urtegiko defentsa sutsua egin du aste honetan Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuko Lehendakariak, «ezinbestekoa da herrialdeko garapen ekonomikoa eta industrialak bermatzeko». UAGN sindikatuak egindako urtegiaren aldeko manifestua sinatu zuen Allik asartearen, beste Institutuzio, talde, elkarte, udaletxe eta sindikatu batzuen ordezkariek egin zuten bezala. Iragarria zuten urtegiaren aldeko ofentsia hasiko zutela, manifestazio eta guzti egiteko asmoa zegoen, eta hasi da. Hori bai, manifestazioa prestatzeko denborarik ez dute izan, hauteskundeak gainean baitaude, baina manifestua atera eta sinadurak biltzen hasiak dira. Lehendakaria propio joan da Brusselara, Gobernuak egindako txostena aurkeztu eta proiektuaren defentsa egiteko.



Inaxio Errandonea
Pilotaria

Inaxio Errandonea Berako pilotaria Fernando Arretxeekin batera ariko da Esku Banakako Txapelketaren finalean, gutxi horrela uste bazuten ere, Galarzaren kontra erraz irabazi baitzuen. Ez da txapelketa osoan faborito izan, eta finalean ere ez da faborito moduan aterako, baina auskalo. Uztailaren 3an jokatu da, Arretxe atzerapena eskatu baitzuen eskutan zuen mina sendatu ahal izateko. Aurtengo txapelketa oso arraroa izanda hasieratik, Retegi, Tolosa eta Eugi erretiratu ziren, Arretxe Galarzari irabazi zion eta honek Errandorearen kontra ere galdu zuen. Luzaide eta Bera aurrez aurre, indarrez eta gogoz aterako dira biak, orain arte erakutsi baitute forma onean dabilzala. Hoberenak irabaz dezala.

AHAZTU GABE!

EKITALDIK



Iruñeko Gazte Asanbladak (IGA) antolatuta, ekitaldi ugari izanen dira asteburu honetan Euskal Jai pilotaleku zaharrean dagoen gaztetxean. Hilabete daramate bertan IGako gazteak, eta garbiketa lan handia egin ostean ekitaldiak antolatzeari ekin diote. Gaur eguerdian enkartelatze-kontzentrazioa egingen dute udaletxe plazan, udal bilkura baitago, eta bertan Euskal Jai eta inguruko lokaletan egin nahi dituzten etxebizitzaren programa onartuko baita. Arratsaldean, 18.30ak eta 20.30ak bitartean, Eguzki Banaketak antolatua materialen banaketa izanen da, gaztetxean bertan. Ondoren, ostiraleko asanblea. Bihar, bestalde, Auzolan Eguna da, gaztetxea ez baita bakarrik eraikitzen. Hamaiketan lanen banaketa egin eta bakoitzak ahal duen guztia lagundu ostean bazkaria dago 15.00etan.

JENERO XUMEKOAK

Klaus Kinski Aranoko neskari telurikuki (eta III)

Eta orain Judizio Generala gertatuko balitz, eta Jaungoikoak egunkarietako zuzendariari galdetuko balie zenbat poesia argitaratzen duten, gehienak ixilduko lirakeke. Poesia irakurtzen ez duzun horrek jakin ezazu egun hori gertu-gertu dagoela. EUSKALDUNON EGUNKARIAN bederen maitale telurikoek beti dute beraien txokoa, laztana.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketarako.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Etxalar

Altxata gasna lehiaketa

ETXALAR

Gasna Feria izanen da Altxata Elkartek asteburu honetarako antolatu dituen Udaberriko Kultur Egunen ekitaldirik azpimarragarriena. Igandean, horrela, 10.30etan III. Altxata Gasna Lehiaketa zabalduko da, alderdiko gasnagileen partaide-tzarekin, eta 11etan Gasna Feria izanen da, inguruko produktuen salmenta eta erakusketarekin. Egun berean, bertso saioa, sari banaketa —13.30etan— bakzaria, gasna sarituen enkantea —15.00etan— eta dantzaldia izanen dira, azken hau Kaxiano akordeolari famatuak girotuta. Egun, Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Leitzaldean badira 500 artzain baino gehiago, eta 70.000 kilo gasna saltzen da urtean.

Bihar, larunbata, hitzaldia eta diapositibak izanen dira arratsaldeko zortzietatik aitzinera, 'Nekazaritza ekologikoa gaiaren inguruan. Halaber, heldu den igandean, hilak 19, Haurren Eguna antolatu dute Altxatakoek, 'ortzegun gizeneko antzerkia', musika, eskulan eta erakusketarekin.



Inguruko gasnak dastatzeko aukera izanen da.

Iruñea



Zaldikoko txapeldunak

Joan den larunbatean Zaldiko Maldiko, Donostiako Arrano eta Gasteizko Bagare elkarteek antolatutako mus, partxis eta xake txapelketetako finalak jokatu ziren Iruñean. Musean arabarrak nagusitu ziren eta partxis eta xakean gipuzkoarrak. Nafarrak bigarrenak denetan. Argazkian txapeldunak, sariak jaso aurretik.

Tafalla

Uharteko Tailerraren pintura eta eskultura erakusketa

TAFALLA

Patxi Buldain pintoreak zuzentzen duen Uharteko Pintura eta Eskultura Tailerreko ikasleek osatutako erakusketa ikusgai dago Kultur Etxean, hilaren 15a arte. Patxi Buldain bera, Jose Urdin, Natxo Barberena, Koldo Agarraberes, Arturo Navaz, Pablo Juarros, Oskar Paternain eta Carlos Serventen lanak daude, ikusgai, Tafalla baino lehen Zangoza eta Burlata bisitatu dituen erakusketa honetan. Ondoren Donapaleu, Lekunberri, Irurtzun, Zizur Nagusia, Lodosa, Elizondo eta Tuteran izango da.

Patxi Buldain (Iruñea, 1927) ezaguna da oso Nafarroako pinturaren munduan, eta erakusketa frankotan hartu izan du parte, 1959an Parisko L'arts Libre erakustokian bere lehen lana paratu zuenetik. Arco Madrilgo arte azokan egon zen 1984an, eta Nafarroak Expo'92n erakusketa erraldoian paratu zuen pabilioian ere parte hartu zuen bere lanekin. Bitartean, Uharteko tailerra osatu zuen, aipatu artista guztien lanak bildu eta ontzeko baliagarria izan dena.

Baiona

Nafarroari poema irekia

L.E. / BAIONA

Maiatz elkarteak Baionako Bil Txokon antolatu 'IX. Solasaldien' kariatara, bart Manex Erdozainzi-Etxart zenaren poema bilduma argitaragabe bat aurkeztu zen, 'Nafarroari poema irekia' izenekoa. 'Bizitza Pilpirak' liburuaren zati bat osatzen du.

Hamabi poemak osatzen dute Nafarroari eskaini obra. Lehendabizikoan «historia luzean itzulika eta zeharka» ibili herria aipatzen du, «ume hezgaitez» osatua. «Erresistentzia herri bat eraiki dugu» esaldiarekin bururaten du. Nafarroa eta Euskal Herria identifikatzen dituen poema sailean gogoeta ugari dauka. Bertan ere bere pentsakera sakona posiar buruz plazaratzen du, herriari mintzo nahiarekin: «hitz hauk nahi ditut irakur eta konpreni erretzak, nere Herri langilearen tripatik eta odolirik ateraia direlaket».

«Bizi nahi duen herri bat datorrigu! Gure herria!» dio azken hitzetan. 1977.eko udazkenean osatu poema bildumak duela hamar urte hil idazle handiaren pentsakera sakona dakar, bere dimentsio handienarekin.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



Izan garelako izanen dira

Hiritarra naiz eta harro nago. Behin eta berriz errepikatu dut hori hemen, eta behin eta berriz esan dut nahiago dudala Flan Txino el Mandarin hautsekin egindako flana baserriko arrautzaz egina baino, hiria herria baino, alegia. Urtero bezala, ordea, hiriburua utzi eta Nafarroako geografian barna ibilbide mistiko samarra egiteko ordua heldu zait, Donejakue bide berezia. Bai, hiria utziko dut asteburuero, eta Nafarroa osoko herriak bisitatzea joanen naiz; izan ere, joan den astean Arrosadian, udako jaietako bide luze eta zaila hasi genuen gazte eta ez horren gazte nafarrok. 'Navarra en fiestas' hasi da, Zapateria kaleko egunkari atzerakoiak esanen lukeen bezala.

'Navarra en fiestas', barraka politikoak, eta patxaran beroa, eta izotzik ez, eta Konga eta Taberna Hermanosekin eginko kalimotxoa, eta Gin Fullekin egindako ginkasa eta... eta pazientzia, Job santuak adinako pazientzia beharko dugu barraren aurrean gure txandaren zain, zerbitzariak guri kasurik egiten ez digunean, eta alboko memelo ailegatu berriari zerbitzitzen dionean.

Eta koipea. Makina bat, ha maika dozenaka, ehundaka, milaka ogitarkeko koipetsu janen ditugu uda amaitu bitartean. Gora txistorra, gora odolkia, gora xingarra, gora txerriak oro har! Gora, baina hori bai, mostaza eta keptxup askorekin. Urdaiak ongi presta daitezela, bidea gogorra izanen baita. Asteburu honetan Etxauri, hurrengoan Donibane, gero Barañain eta aurretik Arrotxapea, eta berehala Sanferminak eta gero... sopas en kaldero.

Gogorra izanen da, hori argi dago, batzuk bidean geratuko dira, Agoizko txosna baten atzean, Zizurko zelai batean, Lizarrako plazako eszenatokiaren azpian edota batek daki non. Lasai, zutik geratzen garenok —ni bidean ez geratzea espero dut— aurre-ra segituko dugu eta. Izan zirelako gara, izan garelako izanen dira.

ALBERTO BARANDIARAN / TUTERA

Betidunik uztartu dira bertan kulturak, aniztasun handiko topaleku izan baitira Erribera eta bereziki Tuteran. Eztabaidak eta solasaldiak, beraz, ezagutuak behar dituzte izan, baina gehienetan ez dira oso era onean bukatu. Mairuak, juduak eta kristauak bildu ziren garaian —Erdi Aroan— inoizko garapen kultural eta ekonomiko handiena izan zuen Tuteran eta Erribera osoak, baina inguruko alderdi guztietan bezala, arras moztu zen elkarbizitza, kristauen intolerantziak puntu gorena lortu zuenean.

Orain antzeko trantzean dabilta bertan, heldutako magrebiarren arazo larri askoak sortu baitituzte, Tuteran bereziki. Horregatik, harridura sortzen du Nafarroan gelditzen diren azken tertuliek prezeski Erriberako hiriburuan irauteak. Toki orotan desagertu direnean, Delta hotolean eutsi diote —edo sortu dute?— kaleko arazoei buruz eztabaidatzeko ohiturari. Gizalegez, patxada ederrean, mahai baten inguruan bildurik, eta arazo askori irtenbidea aurkitzeko asmoz. Tuterako tertuliak dira.

Bi dira, bata 'politikoa' eta bestea 'kulturala'. Halaxe esaten diete bertan, eta halaxe izendatzen dituzte partaideek ere. Famaena Matias Escribano kazetari ezagunak duela bost bat urte sortu zuena da. Tuteran eta Erriberako aurpegi ezagunenak biltzen dira, horrela, aste guztietan, Erribera, Nafarroa eta Espainiako gaiak tratatzeko. Ohizkoen zerrendan eurodiputatuak —Luis Campoy—, diputatuak —Jose Antonio Gaiarre—, alkateak, zinegotziak, enpresariak, abokatuak, arkitektoak eta mediku ezagunak azaltzen dira, eta tarteka ere sona handiko gonbidatuak izaten dituzte. Baina ez euren betiko marmarra errepikatzen, jendearen galderei erantzuteko baizik. «Guk markatzen diegu neurria», dio Escribanok, «eta galdera andanari

Larunbatero biltzen dira, batzuk goizean, besteak arratsaldean. Politikari buruz mintzatzen dira goizekoak, kultura eta gizarteko gaiei buruz arratsaldekoak. Bi taldeak Tuterakoak dira. Nafarroan gelditzen diren azken tertuliak. Politikazaleek hainbat gaitan desadostaunak dituzte, eta kulturazaleek ia denetan. Soilik historia eta iraganari dioten atxikimenduan aurki daiteke beren aniztasunaren lokarria.

Tertuliak: solasaldirako aitzakia

erantzun behar izaten diote. Hala eta guztiz ere, «gonbidatutako bakar batek ere ez digu muzin egin».

NAFARROAKO POLITIKARI «GEHIENAK»

Lortu ere, eragina lortu baitu tertuliak. Bertatik igaro dira Nafarroako politikari gehienak «Juan Cruz Allirekin hasita eta Iñaki Cabasesekin bukatu arte» —hor amaitzen da, nonbait, talde politikoen eremua Deltako tertuliakoendako—, «kontseilari guztiak ahaztu gabe». Eskuindar fama izanik ere, partaidetza nahiko orekatua dagoela dio Escribanok eta, adibide gisa, «Euskadirekin integrazioa nahi dutenak ere» badirela dio. «Hil honetan etorriko da Carlos Garaikoetxea, eta harremanetan ari gara Xabier Arzalluz etor dadin. Izan ere, hemen mai-tekiro tratatzen ditugu eta Euskal Herriko gaiak». Solaskide onenak: Alli, Fernando Mujika 'Diario de Noticias-eko' zuzendaria eta Lapazaran kontseilaria izan omen dira, eta tentsio handikoak Sanz eta Alliren arteko gora-beherei buruzko egunak.

Talde bat definitzeko adostasunei erreparatu behar omen zaie, eta hau ere ez da salbuespena. Autobidea, Itoizko urtegia, Euskararen Legea eta Bardeak

izan dira gai eztabaidatuenak, baina adostasunak, esanguratsuak oso. «Itoizko urtegiaren inguruan ez dago dudarik», azpimarratu du Escribanok: «Denok ados gaude, Erriberarako funtsezkoa delako. Hor dugu etorkizuna». Hala ere, ez da berdin mintzo tertuliaren bultzatzaile eta aurpegi ezagunena Erriberako jendearen prestakuntzari buruz. «Alderdi honetako garapen ekonomikoa ezin da parekatu garapen kulturalarekin, eta horregatik tertulia. Hemen dago unibertsitate ateratako jende gaztea, hitz egiteko gogoarekin, eta ikusirik komunikabideek ez dutela aukera hori eskaintzen, honen alde egin dute».

KULTURALA, ANIZTASUNAREN LEKUKO

Kulturaren inguruko eta Tuterako gaiak bultzatzea da, hain zu-

zen ere, bigarren tertuliaren helburua. Aurrekoarekin harreman bakarra izena da. Merindad de Tudela Ikerketa Zentroaren inguruan sortuta duela bost urte, politikaz soilik «beste gairik ez dagoenean» mintzatzen dira. Hemen ere bada elkarrekiko lotura: Tuteran, iragana eta historiari atxikimendua, baina badi-tuzte gustuko gaur egungo arazo sozialak ere. Eta horri buruz solasteko eskatzen diegunean, Tuterako Las Mejanas alderdiko etxetxo batean, eguzki galdan, bazkari eder baten ondotik, ez diote muzin egiten. «Ez da egia Erriberak maila kultural eskasagoa duela», diote, «hori beti esaten baita hiritik herriei buruz. Egia da unibertsitateak Iruñean eta Zaragozan daudela, eta hemen tituluak dituen jende gutxiago dagoela, baina bada hirian ez dago beste harreman bat, prestuasun bat. Gainera, hemen, kultura mundu guztiarengana heltzen da, eta jendeak kultur-egaria du».

Jose Luis Majuelo Merindad de Tudela taldeko buruetakoak, Julio Mazo liburu-saltzaile ezagunak eta Milagros Rubio Bazarreko zinegotziak osatzen dute, besteak beste, taldea: aniztasunaren lekukoak denak. Haien esanetan, taldeak ez du hel-

buru finkorik: «Gure asmoa ez da helmuga edo lorpen batzuk eskuratzea, beste talde kultural batzuk laguntzea baizik. Azken finean, lagun talde bat gara, gaur egungo arazoei buruz eztabaidatzea gustuko duena».

Haien ustetan, etorkin magrebiarrak dira Tuterako gaur egungo arazorik handiena, eta edozein unetan eztanda egin dezake. «Gu gara nahasketaren aldekoak, baina elkarrekiko begirunea ahaztu gabe. Hori galdu egin da txabolekin izandako erasoetan, eta gaur egun oso arazo handia da Tuteran». Taldearen barruan, ordea, bada desadostasunik gai honen inguruan. Batzuek erabateko nagusitasuna ematen diote; beste batzuek, al-diz, ekonomiari erreparatzen diote batez ere. «Etorkizuna oso beltza da, Iruñea 50eko abiaduran baldin badao, Tuteran 10ekoan doalako. Gainera, jende gazteari ilusioa falta zaio, eta animoa ez da sobera ikusten». Iruñeko zentraltasun nahiari buruz ere garrantz mintzo dira. «Nafarroa osoa biltzen ari da Iruñea inguruan, eta Zaragozarekin gertatu den bezala gertatzen ari da. Aldea da ikusi ditugula ondorio latzak Aragoi, eta Nafarroan badugula irtenbideak martxan jartzeko abagunea».

Ebroko ardatzean ez dute itxaropen handirik, «urteetako gezurra delako», eta garbi daukate non den beren iparrorratza, norantz begiratzen duten. «Erriberak badu Aragoi, Errioxa, Gaztelua eta Nafarroako eragina, eta ez dugu zergatik erabat nafarrak izan behar, eragina askoz ere anitzagoa izanik. Nortasun berezkoa dugu». Tuterako iritziak dira, Euskal Herriko alderdi batenak. Akaso euskaldunondako gure herriko alderdirik ezezagunena, muga psikologikoa handia da eta. «Guk askotan gaingitu ditugu mugak», esan digu Matias Escribanok, «orain zuek egin behar duzue muga psikologiko hori gaingitzeko ahalegina».



Arraza zarra

1.— Palindromoak

Palindromo erraten zaie ezkerretik eskuinera bezalaxe eskuinetik ezkerre irakurtzen diren hitz erraldiei. Errate baterako, idazki honen izenburua, edota: 'A, baroi, zure igorakadak irin nirika dakar; ogi eruziora, ba'.

Sotades greziarrak asmatu omen zituen K.a. III.mendean, eta garai hartatik hona behin baino gehiagotan izan dira eztabaidagai. Izan ere, arazo franko sortzen dituzte, bai haien adiera zehatza erabakitze orduan, bai hizkuntza batetik bertzerantz itzultzerakoan.

Bigarren afera honi dagokionean, irtenbidea erraldi paralelo batean bilatu ohi da, garrantzitsuen palindromoaren forma simetrikoko eta itxia gordetzea delakoan. Adibidez, 'raza y azar', edota 'Ana lleva enes al abad, al reconocerla dabala Senen avellana'.

Eta euskaratik erderara bezala, erderatik euskara ere: 'somos o no somos' nolabait euskaratzen, antolatuta beharko genuke holakoren bat: 'abre badira, ala ari da berba?'.

Ikusten den bezala, palindromoaren fondoan bigarren maila batean geratzen da, eta arazoak areagotzen dira erran nahi itxi bat egokitzearen. Palindromoa borobilago eta zailago bat egiten. Gauzak hola, zertarako horren fin iruntzen ahalegintzea? Merezki al du horrenbertze zaintzea erran beharrekoa? Palindromoak holaxe dio: 'aztiak ari badira, ari da biraka itza'.

2.— Lovecraft

Gauza bertsua gertatzen da ametsekin. Nahiz eta gizakia ren sormenaren lan emankorren eta perfektuena izan, gutxitan bilakatzen da artelan, nekez ailegatzen da ametsa bereganatzerantz eta bertzeenganatzerantz.

Artearen bi baldintza horiek betetzea lortu duen idazle gutxiarik bat H.P.; Lovecraft omen da. Berari buruz idatzi dute gizateriaren terrore zaharrenak berpiztu zituela, eta «bere garaiko beldurrak baino etorkizunekoak adierazi zituen». Howard Philip Lovecraft 1890ean jaio zen, Ingelateran Berria estatu iparamerikarretan Providence herrian. Agudo galdu zuen gurasoen euskarria. 1893an aita estafa akusaziopean gartzelan sartu zen eta bi urte geroago zendu. Orduan amak seme bakarrarengana zuzendu omen zuen bere neuras-tenia, 1921ean ero hil zen arte. Baina sikoanalisiak anagramak deszifratzen ditu, dream madre. Ez palindromoak, ama zian anai zama.

Hogei hamar urteak bete ar-

tean Lovecraftek ez zuen etxetik kanpo gaurik egin. Egunak aitona ren liburutegian ematen zituen eta sei urtekin paganismo klasikoaren kondairekin arras zaletu zen; Pan jainkoa, Apolo, Artemisa... Artean amesgaizto izugarriak izaten zituen, oso errealek eta hari garbi garbikoak. Ametsengatik eta ametsetarako bizi omen zen, isolamendu pertsonal eta izpiritualean, bertzeak ez bezalakoa zelako sentimendua bere baitan nagusiturik —irakurri THE OUTSIDER ipuina—. 1937 urtean hil zen Providencen.


Interesgarria iruditu zait Lovecraften bizitza eta nortasunari buruzko zirriborro bakan hauek ematea, zeren eta 1927ko

Erran bezala, umetatik Lovecraftek liburuetan bilatu zituen ihesbidea eta aurrerabidea, 'libruak —zu ez— zeuzka urbil': mitologia, astronomia, arkeologia, esoterismoa, elaberri gotikoa... Gero, Poe-ren eskutik eman zen terrorezko literatura ren berpiztean aurkitu ditzakegu hainbat eragin, bertzeak bertze, Dunsany-ren ipuin onirikoak, Machen-en kultu paganoak, Blackwood-en izaki gorputzgabeak, Primordialak deritzenak, hots, lehenbizikoak eta funtsezkoak...

Hori guziaz oinarrian unibertsu harrigarri bat sortu zuen, Cthulhuren Mito famatuekin gorena jo eta —bere aldetik— gaur arte berebiziko eragina

rela bere haurtzaroan, Tribulus Militum ibiltzen zela Julius Caesaren atzetik, Galiak arrasatzen —Lovecraft britaniar senditzen zen, iparamerikar independentziari Zisma Haundia deitzen zion, nahiz eta 'izar eta barrak azoka puru Eurupako zakarra baterazi'—.

Nik neuk alde hori azpimarratu nahi nuke, hain zuzen ere, bertze alde aunitz luze aztertze-ko modukoak izan arren, halanola inguru historikoa, Pompeio hiriarren deskripzioa edo Sabbath ikaragarria. Izan ere, azken aspaldi honetan puri purian ditugu Kurtz antzekoak, ilunpean bihotzean —zalantzagabetasunean— jainkotxo bihurtu ziren 'kuestor probintzialak'.



urriaren 31an oso amesgaizto berezi bat jasan baitzuen. Providencen zen berrito, bi urtez ezkondu bizi eta gero. In-somnioak jota, ohitua zen gauetan New York zaharretako auzo ilunak ibiltzera, baina Providencen gauan loak hartu zuen, nonbait, eta ametsak Nafarroara ekarri. Beraz, Hemingway (Bide Hesitua) eta Dos Passos idazle famatuak 30 urte geroago hainbat gau-pasa egin zuten nerako, Lovecraft oraindik ez zaganak dastatuak bide zituen Nafarroako gau beldurgarriak.

Bi egun geroago, gutun bitxi baten bidez, Lovecraftek eman zion lagun bati amesgaizto haren berri, erranez «seguru nago noizbait paperatuko dudala» —hain izan zitzaion izugarri—. Tamalez, segurtasun ustela gertatu zen, eta gutunean landu gabe kontatutakoa bertzerik ez dugu. 'The Very Old Folk', Alberto Santos Castillok gaztelaniara itzulita, 'La Noche del Oceano y otros escritos inéditos' bilduman aurkitu daiteke.

3.— The Very Old Folk

izan duelarik. Lovecraftek berak hola dio: «nere istorio guziaz, elkarrekin lotu gabeak iduritu arren, ideia bereberetan daude oinarriturik: mundu honetan, bertze garai batean, bertzelako arraza bat bizi izan zela, majia beltzean aritzeagatik bo- tea izan zena, eta orain kanpoaldeko plano batean bizi dena, Lurra eskuratzeko aukera zelaten».

Arraza zahar hori litzateke, ametsaren arabera, Erromatar Inperioaren garaian Nafarroako mendietan nagusi izan zena. Eta ez ziren euskaldunak, izan ere, «hizkuntza zorrotz batez egiten zuten, vasconedako ulertezina». Nik neuk susmoak ditut, zehazkizun bakanei erreparatu, ultzamarrak ez ote ginen. Baina hipotesi honek sobera luze joko luke. Ekin diezaiodan zuzenean amesgaixtoa doi jorratzeari.

4.— Iulus Verus Maximinus

Izen honekin sinatzen du Lovecraftek gutuna, eta hasieran aitortzen du erromatarrei buruzko ametsak ohizkoak zi-

koak ez berotzeko eritzi ematen du: «hobe da natibo kolonizatu gutxi beldurrei aurre egitea, mendietako biztanle eta base-rritarren haserrea piztu zeza-keen ezer egin gabe».

Baina prokonsulak C.Rufusen aholkuak hartuko ditu haintzat. Luze xamar bada ere hona —nola edo hala euskaratuta— Oskorri emandako argudioen ardatza:

Bat. Vascon basatiak, gutxienera jota, liskarzale eta ilunak dira. Beraz, kontu haundiena jarrita ere, nahitanahiez izanen dugu, goizago edo beranduago, enfrontamentu armatu bat haiekin. Bi. Ez dute behin ere demonstratu legio erromatarrei aurpegia emateko gauza direnik, eta arriskutsua izan liteke Erroma Inperialeko buruek neurria ez hartzea beren hiritarrak zaintzeko. Hiru. Probintzi baten kudeaketaren arrakasta lehen lehenik ale zibilizatuaren segurantz datza, haien eskuetan baitaude merkataritza eta aurrerakuntzaren giltzak, eta haien zainetatik ibiltzen baita erromatar herriaren odola. Ale hauek, gutxi izanik ere, egonkortasuna ematen diote multzoari, eta beren kooperazioak Erromako Inperio, Senatu eta jendearen boterea indartsu mantentzen du. Behinena da erromatarra zaintzea; nahiz eta horretarako —Balbutius eta Aselliusi begirada maltzur bat zuzenduz— Calagurriako kanpamenduko jai eta jan bestak eten eta lan pixkuat behar izan.


1927an Britaniar Inperioaren burukomina indiarrek ziren, agian horrek zirikatzen zuen Lovecraften loa. Baina ez dut ametsaren bukaera irekia azaldu behar hemen, mugatuko naiz hiru gauzatxo gaineratzerantz. Batetik, kohorte haren eginbehar ximplea: «nahikoa da partaideak atxilotzea, eta ikusle-hutsak libre uzteak gutxiagotuko du arraza zahararen errotu jarraitzaileek gorde lezaketen arrenkura».

Bertzetik, bere kezka handiena, alegia, kohorte hura gorabehera menditarrek Sabatha ospatzeko prest jarraitzea. Azkenik, ondarreko pasarteak, hitzez hitz: «Eta orduan esnatu nintzen. Azken urteotan izan dudana amets errealean izan zen, nere subkonszientean jarrita leku eta gauza atzendentuen gainean. Ez dago kronikarik kohorte haren patuaz, baina hiria behintzat salborik geratu zen; enziklopediek Pompelo hiria egun badagoela diote, espainiaraz Pompelona izena duena».





XAKEAN




Udaberri Torneoaren seigarren ihardunaldiko partida. 94ko maiatzaren 28an jokatu. Ramon Ruiz De la Cuesta, 2.220 ELOkoa-Rafael Ruiz Escobar, 2.055 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zc3,Zc6; 3.g3,g6; 4.d3,Ag7; 5.Ag2,Zd4; 6.gZ-e2,d6; 7.0-0,Zf6; 8.h3. Beharrik gabeko jokaldia, defentsa antolatuta dagoelako. 'Zd4' hobeto legoke, garapena burutzeko denbora galtzeke. 8..., Ad7; 9.Ae3, Dc8; 10.Eh2, e5; 11.Dd2. Ikus Koadroa. Txuriek asmatu ezinean, beltzek ez dute lan asko egin beharrik izan peoi bateko abantaila hartzeko ('Zf3' meahxtuari esker). 11...,Ah3; 12. Zd4. 'Ad4' zuzenagoa zen. Galera berriak etorriko zaizkie txuriei.

12...,Ag2; 13.Zf5. Bstela: 13.Eg2,c-d4. 13...,f5; 14.Eg2, f4; 15.Af4,f4; 16.Df4. Partida ia erabakita geratu da. 16..., Dd7; 17.Gh1,h5; 18.Gh4, 0-0-0; 19.a4, a6; 20.a5,De6; 21.b4. Erasora jotzeko beharrik beste huts bat eragin du. 21...,Zg4; 22.Dd2,b4; 23.Zd5, Aa1; 24.Db4,Af6; 25. Gh1, Gd7; 26.Db6,h4; 27.Da7,h3 xa; 28.Ef1,Gc7; 29.Zb6 xa, Ed8; 30.Db8,Gc8; 31.Db7, Gc2; 32. Db8,Gc8; 33.Zc8, Dc8; 34.Dd6 xa,Ee8; 35.Df4, Gh5; 36.Dd2, Gc5. Bukatutzat eman zuten txuriek. Partidaren kotrola nahiko arin galdu eta gero.

Animaliak izateak duen arriskua

Orain dela aste bat kalean nentzen, klasetik bueltatzen nintzelarik lurrean zerbait nekusan. Hor etzanda zegoen eta ez zitzaidan burutik pasa txori bat zenik. Baina eskuak luza-tu eta hartu nuen. Odola isurtzen zitzaion, begiratzen hasi eta konturatu nintzen hegalean zauri bat zeukala. Etxerantz korrika joan nintzen, sukaldetik alkohola eta kotoia hartu eta sendatzen hasi nintzen. Bukatu ondoren nere pan-pinetako ohe bat hartu eta hegala ukitu gabe barruan sartu nuen. Berehala lotan gelditu zen.



Oihane Simon
(BARAÑAIN)

ro, kalean uzteko zeren eta gero berari estimua hartuko nion, eta zerbait gertatuko balitzaio tristura handi bat sortuko zitzaidan.

Txoria etxera ekarri nuenean gauza bera esan zidan. Esandakoaz pentsatu gabe, aitarengana joan eta dirua eskatu nion. Aitak bai eman zidan. Kaiola erosi eta gero etxerantz nindoan, txoria hartu eta poliki-poliki kaiolan sartu nuen.

Hasiera batean pozik nengoen, eta txoriari izena eta guzti jarri nion, baina txarrena janaria nik ordaindu behar nuela zen. Egunak joan egunak etorri txoriak gero eta ahulago zegoen, baina ni arazoaz konturatu ere ez. Gau guztiak oi-hu-



Bere hegala sendotzea gutxi gora-behera bost egun kostatu zitzaion, eta egun horiek nere logelan pasatu zituen. Egun batean erabaki nuen txoria kalera eramatea, lagunek ikusi zuten eta liluraturik gelditu ziren. Hegan egiten lagundu nion baina oraindik ez zekien. Orduan erabaki bat hartu nuen: kaiola bat erostea. Hurrengo egunean amari dirua eskatu nion, baina berak dirua eman ordez abisatu zidan: hegala ondo zeukanez ge-

katzen zuen, baina ez zuela inporta pentsatzen nuen. Konturatu nintzen ni pozik nengoen bitartean bera triste zegoela, kaiola batean sarturik, askatasunik gabe. Erabaki bat hartu nuen goizean klasera nindoan bitartean: txoria lorategia, belar batean uztea. Horrela egin nuen. Baina klasetik bueltatzerakoan utzi nuen lekuan aurkitu nuen, eta hilda zegoen. Momentu horretan gogoratu nuen amak esandakoa.

Goñiko Teodosio (I)

Shakespearek eta bazkalondoko kulebroi hegoamerikarrek osagai berak dituzte. Aldea da kozinatzeke garaian tipula edota metafisika erabiltzean. Bai Teodosio Goñikoa bai Tebaseko Edipo, funtsean istorio bera da, bere patua onartu ez eta horren kontrako lehia desorekatuan aritzen diren bi gizonena. Aztertu baino lehen ikus dezagun leienda, Erein argitaletxearen 'Euskal Leiendak' liburutik hitzez hitz hartua:

Leiendak dioenez, Teodosio etxera omen zetorren Nafarroa menperatu nahi zuten godoen aurka gerra egin ondoren. Orduan, Erretabidean, Ollaranerako

bidean, gizon estrainio bat azaldu zitzaion, here emazteak, Bruto-neko Konstantzak, maitalea zeukala esanez (beste bertsiotan, berria burrukan ari zelarik jaso zuen, eta arerioa mauruak ziren, ez godoak). Odola ikakiten, Teodosioak zaldia ezproinatzen zuten eta ilunduta gero iritsi zen etxera. Logelara igo zen eta ohean bi lagun zeudela ikustean, ezpata atera eta lo zeuden bi gorputz haiek zeharkatuz, hil egin zituen, emaztea eta maitalea zirelakoan. Logelatik irtezerakoan, ordea, Konstantzarekin egin zuen topo. —Konstantza! —Teodosio! Hau Poza! —Baina... zu hemen bazaude, nortzu zeuden gure ohean? —Zure gu-

JUANTXO URDIROZ



Teodosiok Aralarko Mendietan erratuz hasi zuen bere penitentzia. Zazpi urte bazeramatzan eta kateak hasieran bezain berria zirudien.

ra-soak, Teodosio. Bisitaldi bat egitera etorri zaizkit eta etxeko logelarik hoberena eman diet, gurea.

Egin zuenagatik erdi erotuta, Teodosiok apalki onartu zuen ezarri zioten zigorra: Katea lodi bat gerrian zuela izarpean lo egitea, harik eta katea gastatu eta berez erortzen zitzaion arte, hori izango bait zen Jainkoak parrizidio bikoitza barkatu zion seinalea. Teodosiok Aralarko Mendietan erratuz hasi zuen bere penitentzia. Zazpi urte bazeramatzan ere zigorra jasaten, kateak hasieran bezain berria zirudien. Behin batean, leize batera hurbiltzerakoan, izugarriko zarata entzun zuen eta, une hartan bertan, herensuge latz bat azaldu zitzaion. Mamutzarra bazen gizona halako hogeita Teodosio ikusi orduko, haren-

gana abiatu zen mehatxu garbian. Gizon gizajoa, penitentziaz eta zintzilik zeraman kateaz ahuldua, apenas mugi zitekeen. Horrela bada, jaitsi zen San Migel Jainkoa buru gainean zuela eta herensugearekin burrukan aritu ondoren, hil egin zuen. Piztia hila lurrera erortzearekin batera Teodosioren gerriko katea ere eten eta lurrera erori zen. Laguntza honen eskeronez, Goñiko Teodosiok eta bere emazteak San Migel in Excelsis Saindutegia eraikitzeke agindua eman zuten. Gaur egun ere, haurdun geratu nahi duten andreak joaten dira hara mesede horren eske. Hormetako batean zuloa dago eta, diotenez, infernuko hotsak entzuten omen dira handik. Jendearen ustean, burua zulo horretan sartzean, buruko minak erabat joaten omen dira.


Tuterako Sefardien Lagunen Elkarte osatu berri du Haim Menir Sokkar Egipton jaio, Frantzian laketu eta arbasoak Tuterakoak dituen juduak. 1512an bere arbasoak erbesteratuak izan ondoren, sefardi hau, bere erlijioako asko bezala, bere iraganean murgildu zen, eta Tuterara heldu, itzuli da. Orain, Udalak etxe zaharkitua utzi dio bertan bere erlijioari buruzko lehen museoa egin dezan. Urrian zabaldu nahi dute etxe berriztua.

Sefardiak, etxera

PATXI ULAIAR / TUTERA

Tuterako Sefardien Lagunen Elkarte Haim Menir Sokkar juduaren ideia izan zen haste-hastetik. Egipton jaioa eta Frantzian abegi hartuta 1949an, Tuteratik XVI. mendean alde egin behar izan zuen familia baten azkena da. Beatrice Leroy Nafarroako juduen historia ikertu duen historilariaren lanari esker, bere familiaren sorterrria aurkitu zuen, eta orduan hasi zen dena. Julio Segura Tuterako artxiboaren arduradunarekin jarri zen harremanetan, eta garaiko familien izenen zerrenda osatu zuten. 1512an Espainiako Errege-Erregina Katolikoek eman zuten aginduaren ondotik erbesteratuak, familia horietako askok gogoan dituzte oraindik beren sorterrria, ahoz aho mende haue-tan guztietan zehar gorde dituzten lekukotasunei esker.

Museoan XV. mendeko juduen ohizko etxe bat era-kutsiko da, eta baita juduekin lotutako hainbat tresna eta dokumentu ere.



אברהם אבן עזרא

Agiriak aztertuta, eta bere familiak ondasun franko zituela ikusi ondoren, bertan museoa egitea bururatu zitzaion Haim Menirri, eta horretarako Tuterako Udalarekin zubia egin du Julio Segurak. «Berak nahi zuen judu eremuko etxe bat» azaldu du, «baina horretarako etekin ateratzea helbururik ez zuen elkarte osatu beharra zegoen, eta jendeari begira ekimenen bat antolatu». Hortik sortu zen elkarte, Tuteran sorterrria duten baina egun erbesteran bizi diren juduek osatua. Asmoa da, baina, Tuterako jendeak ere —bereziki historia eta juduekin lotutakoak— parte hartzea.

Museoan XV. mendeko juduen ohizko etxe bat erakutsiko da, eta baita juduekin lotutako hainbat tresna eta dokumentu ere. Halaber, gaiari buruzko ikerketak, mintzaldiak eta jardunaldiak antolatzeke erabiliko da San Julian kaleko etxe berriztua. Mota honetako Euskal Herrian eraikiko den lehen museoa izango da, eta aurtengo urrian egingo den Jardunaldi Juduen kariaz inauguratzea espero dute bultzatzaileek. Orduan zabalduko dira Benjamin Tuterakoak,

Yehuda Halevi eta Abraham Ibn Ezra pertsonaien garrantzi historikoa.

Tuterakoa izan zen Euskal Herriko judu talderik garrantzitsuenetakoa, Gasteizkoarekin batera, eta Iruñekoaren atzetik. Bertan penintsulako beste komunitateekin batera eratu ziren juduak, eta 1134rako, Nafarroako mugak onesten direnerako, komunitate garrantzitsua osatua dute. Izan ere, 1121ean Alfontso Borrokalariak Tuteran hiria konkistatu zuenean, Naxerako Forua juduei eman baitzuen. XII. mendean ez dago itun ofizial askorik, baina XIV. eta XV. mendeetan franko dira juduei buruzko aipamenak.

XIII. mendeko aipuek adierazten dutenez, ordurako herri askok judu komuni-

tate garrantzitsuak zituzten, eta errege-erreginen babesa eta estimua eskuratua zuten; hainbeste, ezen batzuetan gazteluen babesa beraiei eman zitzaion. Iruñea eta Tuteran izan ziren garrantzitsuenak, baina Funes, Erriberri, Tafalla, Faltzes, Martzilla, Lizarra, San Adrian, Zarakaztelu eta Zangozan ere badira aipamenak.

Tuterako judu komunitatea izan zen, hain segur, Nafarroako ugariena —zenbaitetan Iruñekoa baino garrantzitsuagoa—. Herriaren hego-ekialdean egon zen kokatuta —gaur egungo katedralaren eta Queiles ibaira ematen duen armariaren artean—, eta gutxienez hiru sinagoga izan zituen garai oparoenetan. Oraindik gaur egun aurki daitezke judu itxura bete-betea duten karrikak, oso aldatuak izanik ere, eta etxe asko, orobat, identifika daitezke, denda eta etxebizitza eskailera-

Tuterakoa izan zen Euskal Herriko judu talderik garrantzitsuenetakoa, Gasteizkoarekin batera, eta Iruñekoaren atzetik.

txo baten bidez oraindik lotuta daudelako. Judu eremuak izkina egiten zuen mairu eremuarekin eta hiri kristauarekin. Denen erdian katedrala. Juduen dendak 30tik gora ziren, eta gazteluaren inguruan zeuden kokatuta. Ez da alferrikako aipamena izango esatea juduak arotz aritu zirela horko lanetan. 1328an izan ziren hilketen ondotik, oraindik 270 familia judu zeuden.

Gaur egun arras galdu da sinagogen zantzia, batena izan ezik. Hain zuzen, katedralako klaustro erromanikoan dago, eta Cantera Burgos hebraieran aditu famatuak aurkitu zuen. Hala ere, horri buruz badira duda ugari, Juan Garcia Atienzak 'Espainiako Gida judua' liburuan azaltzen duenari jarraiki. Egile honen arabera, zalantzarikoa da oso sinagoga bat inguru kristau baten erdian egotea, eliza hau XII. mendean amaierakoa baita. Oso garbia eta ezaguna da, alabaina, Tuterako judu sonatuaren oroimenez hiriak eraikitako oroitarria. Izan ere, Benjamin Tuterakoak lekukotasun ederra utzi baitzuen bere bidaiei buruz, eta Tuterako herriar ezagunenetakoa izan da historian zehar.

אם יום פְּרוּתֵי אַחַר - / יְדַעְתִּי, גּוֹאֲלֵי חַי, אוֹחִילָה
אֵלָיו וְעִבְדוֹת אֲבָחֵר / לְשִׁמּוֹ, כִּי חַיֵּשׁ בְּיִשְׁעוֹ אֲנִילָה.

בְּחֵץ לִבִּי בְּשִׁבְי / לְשֵׂאת חַלִּי מֵאֵין לְאוֹת!
אֲבַטַח בְּיִשְׁע אוֹהֲבֵי, / לֹא אֲשַׁאלָה מוֹפֵת וְאוֹת,
אֶךְ אֶהְמָה עַל אוֹיְבֵי / יִשִּׁים נֹוֹה קִרְשׁ נְאוֹת
מְדַבֵּר, וְיוֹם יוֹם יִגְבֵּר / עַלִּי וְרֵאשׁוֹ יְרוּם וְעֵלָה.
מִי יִגִּיד פֶּשֶׁר דְּבָר / אִם לְעַמְלֵי יֵשׁ קֶץ וְתִכְלָה?

רַעוֹת מַעֲנֵי יִקְרוּ / לִי עַל שְׁמָה, אֲב רַחֲמֵךְ,
לֹא אֲחַרֵּךְ אִם אֲחַרוּ / עֵתוֹת פְּרוּתֵי רֵב זְמַן.
אֲזַכֵּר לְיָמִים עֲבָרוּ, / כִּי לִי בָּס אוֹת נְאֻמָּן
כִּי יָדָה לֹא תִקְצֵר / לְגֵאֵל לְעַם בְּחֵרְתוֹ לְנַחֲלָה,
קוֹרָא לָהּ מַמְצָר / לְחַמֵּל וְלָהּ יִסְלַד בְּחִילָה.

מֶה יַעֲלוּ בִּי גּוֹעֲלֵי / אִם אוֹהֲבֵי רַחֲמֵיךְ נְדוּד?
יִקְרָב, יִחַק גּוֹאֲלֵי - / לְעַד לֵוֶךְ לֹא אֲחַמְדֵּ!
אֲרַצָּה בְּמוֹסַר בּוֹעֲלֵי, / בְּבִרְתוֹ חֶזֶק אֲעַמְדֵּ -
עַד שׁוֹב כְּבוֹדוֹ אֵל הַר / קִרְשׁוֹ, לְצִיּוֹן וְלַעִיר תְּהִלָּה,
וְאֵז לְשׁוֹבוֹ אֶהְרֵר / וְלַמְּכַר תְּהִיָּה לוֹ גֵּאֵלָה!

Tuterak izan zuen Euskal Herriko judu talderik garrantzitsuenetakoa Erdi Aroan. Hemen ondoan, Abraham Ibn 'Ezra' judu tuterar famatuaren lan baten pasarte bat, hebraieraz idatzia.

«Ez da erraza izango igotzea»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Vigoko Celta oso denboraldi ona —Kopako finala jokatu zuten— egin ondoren denboraldi tamalgarria egin eta bigarren mailara jaitsi den talde batera zatoz. Zer ikusi duzu Osasunak?

TXETXU ROJO.— Vigon hiru urte t'erdia egon naiz, eta oso pozik, bai kirolari dagokionez bai pertsonalki. Izan dut han gelditzeko aukera eta baita

daude tartean —Dadie, Pizo Gomez, Gudelj, ...—. Nahi duzun taldea osatuko duzu?

ROJO.— Ikusi behar ditugu Osasunak dituen aurrikuspunak, eta ezin da dena bat-batean xahutu. Zuzendaritzak taldea indartu nahi du, eta beharra duten lerroetan indartu egingo da taldea. Ekarrri nahi duguna ekartzea beti zaila izaten da, beste talde batzuek ere badutelako zeresanik, baina ideia orokorra osatua dago, ez bakarrik aipatu dituzun izen

Lehen Mailan, eta nahiz eta aurreten jaitsi, denon artean —taldearen eta zalearen artean, hori funtsezkoa delako— igo behar dugu berriro. Orain ari gara fitxaketak egiten, eta kasuren batean estutu egin beharko da poltsikoa, batez ere funtsezko lerroetan.

EGUNKARIA.— Gudeljen kasuan, esaterako?

ROJO.— Hor goian baten bat behar dugu. Ziober eta Urban hor daude eta onak dira, baina besteren bat beharko genuke.

ROJO.— Gure garaian zazpi euskal jokalaria geunden selekzioan, eta beti ateratu dira hemen jokalaria onak. Osasunak berak baditu egun Barcelonan edo Athleticen jokalaria handiak. Beraz, harrobi lana da. Beti esan ohi da jenderik ez dela ateratzen Lezaman edo Txoaren, baina ikusi egin behar da jende asko saldu egin dela eta, hala ere, oraindik jendea ateratzen ari da. Orduan, fruituen zain egon behar da, uste-kabea etor daitezkeelako.

EGUNKARIA.— Zerbait ekarriko zenuke Lezamatik?

ROJO.— Ez, lana berdintsua

«Hor goian aurrelariren bat behar dugu. Ziober eta Urban ondo daude, eta onak dira, baina besteren bat beharko genuke».

da baina, jakina, ahal izanez gero Guerrero ekarriko nuke... Oraindik ez dut ondo aztertu dena, baina uste dut nahiko antzekoa dela dena.

EGUNKARIA.— Zaila izango da igotzea?


ROJO.— Ez da erraza izango, horretan ez dago dudarik. Urte zaila izango da, lan handia egin behar dugulako. Une onak eta txarrak izango ditugu, eta ezin da esan erraza izango dela. Askoz ere errazagoa da lehen mailan irautea igotzea baino. Nik ilusio handia daukat, eta konfiantza jendearekin, eta lan eginez gero lortuko dugu. Nire buruan ez dago besterik.

EGUNKARIA.— Eta igoz gero, Rojok jarraituko al luke Osasunak?

ROJO.— Bai, jakina, denok ados baldin bagaude. Nahiz eta talde hobeak etorri... hori ez zait axola. Beti begiratzen diet alde onei, eta ez zait gehiegi gustatzen aldatzen ibiltzea.

Txetxu Rojo


OSASUNAKO ENTRENATZAILEA



SOSLATA

Ezker bikaina

Euskal futbolak izan duen ezker bikainenetakoa izan da, Athleticen teknika aparta erakutsi duen produktu paregabe horietako bat. Txurigorrien talde txikiak entrenatzen aritu ondoren, Galiziara abiatu zen, Vigora, sei hilabeterako. Hiru urte t'erdia egon da, eta Bigarren Mailatik igo ondoren, Kopako Finalera eramanez Celta taldea. Orain, dena utzi eta Osasunara heldu da, antzeko zerbait egin asmoz. Berak dioenez, Osasuna beti gustatu zaion talde bat delako, eta «Lehen Mailako taldea delako». Hori bai, hurrengo urtea zaila izango dela dio, «Bigarren Mailatik igotzea Lehen Mailan irautea baino zailagoa da eta».



Txetxu Rojo, elkarrizketan zehar.

OSKAR MONTERO

beste talde batzuen eskaintzak ere, tartean Osasunarena. Eta nahiz eta bigarren mailan egon, aldeko puntuei erreparatu diet. Kontrako bakarra bigarren mailan egotea da eta, beraz, aldeko asko daude. Osasuna talde serio eta arduratsua da, oso jarraitzaile onak eta azpiegitura sendoa dituen. Hori guztia jarri dut balantzan, eta azkenean erabaki hau hartu dut. Erroka bat da, dudarik gabe, eta lehen maila gehiago gustatzen zait, baina Osasuna lehen mailako taldea da.

EGUNKARIA.— Ia etxera itzultzeak izan du eraginik?

ROJO.— Ez, azken finean Vigon nengoenean adina bidaia egingo dudalako Bilbora. Gehienbat Osasunaren izakera-rengatik izan da nire erabakia.

EGUNKARIA.— Fitxaketa asko

horiakin, baita beste batzuekin ere. Hil honen erdian, nolana ere, taldearen % 90 osatua behar dugu izan, lasaitasunez lan egiten hasteko. Larritasunak ez baitira onak. Orduan, aste honetan eta hurrengoan fitxaketa batzuk zehaztuko dira.

EGUNKARIA.— Hain zuzen ere, Osasunari beti leporatu zaio iaz ezin izan zuela taldea osatu ia denboraldia hasi arte. Jarraitu al zenituen gorritxoaren arazoak?

ROJO.— Horrelako berriak nahiko urrun geratzen zaizkizu. Urte hasieran arazoak izan zituzten, eta horrek behartzen zaitu erabaki azkarregiak hartzea, eta hori ez da ona. Baina, hala ere, Ezkurak eta Zaballak egin dutena hor dago, eta orain etapa berri bat hasiko da. Osasuna 14 urtetan egon da

EGUNKARIA.— Athletic eta Celta ondo ezagutzen dituzu. Osasunara heltzean, zerk harritu zaitu, zer gustatu?

ROJO.— Oraindik heldu besterik ez naiz egin, eta dakidan guztia erreferentziak dira —adibidez, oraindik ez naiz izan bulegoetan—. Badakit gauzak ondo egiten dituen taldea dela, eta arlo guztietan lan egiten duela, eta hori oso garrantzitsua da. Ez dut ustekaberik izan, horrela ikusten nuelako kanpotik.

EGUNKARIA.— Zu zeresan handia eman zuen belaunaldi batekoa zara, euskal jokalaria bikainak bildu baitzineten orduan. Orain ere antzeko belaunaldia dago, Espainiako selekzioaren bizkarrezurra. Nola ikusten duzu euskal futbola?

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

